ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2016ko abuztuaren 10a, asteazkena • 89 zk.

## V - BESTELAKOAK

# URAREN EUSKAL AGENTZIA

**Ebazpena, 2016eko abuztuaren 1ekoa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, "Oyon-Oioneko hondakin uren araztegia handitzeko proiektua"-ri hasierako onespena eman eta kontsultarako jendaurrean jartzen dituena**

Proiektu honek du xede Oyon-Oiongo HUA birmoldatzea eta handitzea udalerriko hondakin uren tratamendua hobetzeko, isurketak kalitate-estandarrak bete ditzan.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 86. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, proiektu honen jendaurreko informazio-denbora hastea bidezkoa da.

Aurrekoa dela eta,

EBAZTEN DUT

Lehen. "Oyon-Oioneko hondakin uren araztegia handitzeko proiektua"-ri hasierako onespena ematea.

Bigarren. Proiektua hau jendaurrean jartzea Ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta 2016ko irailaren 12ra arte.

Hirugarren. Aurreko ebazpenarekin bat etorriz, proiektu honetan interesik edo eraginik duten herritarrek erreklamazioak aurkez ditzaten Oyón-Oiongo Udaletxean eta Ur Agentziaren Mediterraneoko Arroen Bulegoan (Forondako Atearen kalea, 9) Gasteizen. Aipatutako egoitzetan proiektua agerian egongo da nahi duenak azter dezan

Dokumentazio bera Agentziaren web orrian (www.uragentzia.euskadi.net) ere kontsulta daiteke.

Vitoria-Gasteizen, 2016eko abuztuaren 1ean

*Zuzendari nagusia*
*IÑIGO ANSOLA KAREAGA*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2016.08.10 06:09:32 Z